



Tratu txarrak eta etxeko indarkeria. Sexu-askatasunaren aurkako delituak

15

Justiziaren Oinarriak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Justizia Administrazioarekiko
Herriemandatarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Relaciones con la
Administración de Justicia

1. Tratu txarrak eta etxeko indarkeria



I. Zer dira tratu txarrak eta etxeko indarkeria?

- Eraso fisiko, psikiko eta psikologiko guztiak dira, hala nola biktimen gorputzean egindako kolpeak, kontusioak, bultzadak, zaplastakoak, harramazkak eta antzekoak eta irainak, mehatxuak, laidoak, isekak eta beste antzeko eraso psikiko eta/edo psikologikoak eta emozionalak.
 - Eraso horiek familiaren esparruan gertatzen dira eta, beraz, eraso-tzailea eta biktima senitartekoak izan ohi dira.
 - Tratu txar fisiko edo psikikoak dakartzaten jarrera guztiak legez zigortuta daude. Hainbat zigor-mota daude (presoaldia askotan, asteburuko atzipenaldia eta abar) eta iraupena gertaeren larritasunaren arabera da. Gainera, biktima babesteko helburuarekin, askatasuna ken-tzeko zigorrez gain beste zigor bat ezarri ahal izango dio Epaileak tratu txarrei lotutako delitu edo hutsegite baten errudunari. Zigor honi jarraiki, errudunak debekatuta izango du biktimari hurbiltzea edo harekin komunikatzea, ezein modutan (aurrez aurre, telefonoz, idatziz edo beste modu batez) eta eपािाि adierazten duen denboran.
-
- Esan bezala, eraso fisiko eta psikiko guztiak legez zigortuta daude (delitu edo hutsegite gisa) eta, beraz, salatu egin behar dira.
 - Salaketa biktimak edo gertakariak ezagutzen dituen beste edozein per-tsonak aurkeztu beharko du Guardiako Epaitegiaren aurrean (eguneko 24 orduetan zabalik dago 3 hiriburuetan, hots, Bilbaon, Donostian eta Gasteizen) edo polizia-etxerik hurbilenean (Ertzaintza edo Udal-tzaingoarenean). Salaketa aurkeztu izanaren egiaztatzea eskatu behar da.
 - Salaketa ahalik eta argiena eta osatuena izango da eta, bertan, salatzen diren gertaerak, datak, lekua, lekukoak eta interesa duten datu guztiak adieraziko dira epaiketan frogatzea gisa erabili ahal izan daitezten.
 - Lesio fisikorik izanez gero, ohikoena lehenbailehen (bai eta salaketa jarri aurretik ere) osasun-zentro batera joatea da (osasun-zentrorik hurbilenera edo hurbilen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura).
Oso garrantzitsua da azterketaren osasun-ziurtagiria eskatzea ondorengo polizia-prozedurarako.
 - Nolanahi ere, Epaitegiko medikuak biktimaren azterketa egingo du.
 - Biktima bere edo seme-alaben segurtasunaz beldur bada, ezkontza-egoitzatik joan ahal izango da eta 30 eguneko epean banantze-izapideak hasi ahal izango ditu (neurriak, banantze-eskea eta abar).
 - Komenigarria da Auzitegiko Medikuak biktimari azterketa bat egitea.

- Baliabide ekonomikorik ez badu eta doako justiziaren onuradun bada, salatutako tratu txarrei lotutako prozedura penaletan eta, hala badagokio, familiako prozeduran (banantze-prozeduran) esku hartuko duen ofizioko abokatu bat izateko eskubidea du. Abokatuak 3 hiriburuetakoko Justizia Jauregietan kokatutako OJZko (Orientabide Juridikorako Zerbi-tzuko) bulegoetan eskatu beharko du.

- Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak tratu txarren eta etxeko indarkeriaren biktimetan espezializatutako eta arlo honetan behar bezala prestatutako abokatu-txanda bat sortzen ari dira. Epe laburrean jarriko da martxan.

Halaber, Abokatuen Elkargoek, Aldundiek eta Udalek, laguntza-baliabideei (harrera-etxebizitzei, laguntza ekonomikoari eta abar) eta baliabide juridikoari buruz behar duen informazio guztia jarriko dute biktimaren esku.

Halaber, hiru hiriburuetakoko, hots, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Justizia Jauregietan Biktimen Arretarako Bulegoak daude informazioa eskuratu ahal izateko.

- Komeni da gertaerak lehenbailehen salatzea. Izan ere, Epaileak gertaeren berri izan bezain laster kautelazko hainbat neurri erabaki ahal izango ditu biktima babesteko eta arrisku zehatzaz urruntzeko. Neurri hauen artean, erasotzaileak epaiak adierazten duen denboran biktimari hurbiltzeko edo harekin ezein modutan komunikatzeko (aurrez aurre, telefonoz, ida-tziz edo beste modu batez) debekua azpimarratu behar da bereziki, kautelazko neurri gisa.

Erasotzaileak agindu judizial hau betetzen ez badu, erantzukizun penalak izango ditu (tratu txarren ondoriozkoari gaineratu beharrekoak) eta, zenbait kasutan, behin-behineko presoaldia ekar dezakete.

- Salatutako gertaeren larritasuna eta erasotzailearen arriskugarritasuna kontuan hartuta, Instrukzioko Epaileak, erasotzaileari entzun ondoren, honen behin-behineko presoaldia edota behin-behineko askatasuna erabaki ahal izango du (arestian adierazitako urruntze-neurriarekin).



Adibideak:

1. Nire senarrak duela hilabete jo ninduen baina ez nintzen salatza ausartu. Orain sala dezaket ala beranduegi da?

Garrantzitsua da lehenbailehen salatzea (kontuan izan behar da denborarekin lesioen kanpoko arrastoak desagertu egiten direla) baina, hala ere, eraso jasan zuenetik sei hilabeteko epea du biktimak salaketa jarri ahal izateko.

2. Nire senarrak jo nau baina ez dut lesio fisikoen arrastorik. Salatu al dezaket?

Bai. Tratu txar fisiko eta psikikoak, ageriko lesiorik gabe ere, legez zigortuta daude. Tratu txarrak egiaztatzeke ahalik eta frogarik gehien bildu beharko duzu (lekukoak, txosten psikologikoak eta abar).

3. Bananduta bagaude ere, nire ezkontide ohia behin eta berriz ari zait irainka eta mehatxuka. Salutzen badut, niri hurbiltzeko debekua ezar al diezaiokete?

Bai. Denboraldi batean biktimari hurbiltzeko debekua erabaki dezake Epaileak.

4. Pertsona bat tratu txarrak jasaten ari dela jakiten badut (ezkontide edo aitarengandik adibidez), salatu al dezaket?

Jakina, halaxe egin behar duzu. Legeak delituzko egintza bat salatzeke betebeharra ezartzen du horren berri duen hiritar ororentzat.



2. Sexu-askatasunaren aurkako delituak

- Sexu-harremanek, ezkontzan nahiz ezkontzatik kanpo, libreak izan behar dute, indarririk eta bortzarik gabeak.
- Sexu-askatasunaren aurkako eraso bat beste pertsona batek (emakumezko zein gizonezko batek) gure borondatearen aurka edo gure baimenik gabe sexu-harreman bat inposatzen digunean gertatzen da.
- Kode Penalak delitu gisa zigortzen ditu sexu-askatasunaren aurkako eraso horiek eta erantzuleei urtebetetik 15 urtera bitarteko kartzela-zigorak ezartzen dizkie. Zigor horien iraupena ekintzen larritasunaren, biktimari eragindako kalteen eta beste zirkunstantzia batzuen (biktimaren ezaugarriak, erantzukizun kriminalaren astungarriak, kasu zehatza eta abar) arabera izango da.
- Kontuan hartu behar da Lege Penalak delituetan parte hartzeko moduak zigortzen dituela (egile gisa, gaizkide gisa eta estaltzaile gisa).

Zer egin behar da sexu-eraso baten aurrean?


1. Ospitalerik hurbilenera joan eta azterketa mediko bat (eta ginekologiko bat) eskatu. Garbitu gabe eta arropaz aldatu gabe joan.
2. Oso garrantzitsua da ikerketa judizialean baliagarriak izan daitezkeen frogak ez desagerraraztea (hala nola arropan, lekuan bertan, biktimaren gorputzean eta abar geratutako arrastoak).
3. Guardiako Epaitegian edo polizia-etxean salaketa eta osasun-ziurtagiria aurkeztu.
4. Edozein zirkunstantziagatik lehenik Ertzaintzara edo Udaltzaingora jotzea erabakitzen baduzu, bertan arduratuko dira zu ospitalera eramateaz eta Epaitegiari ohartarazteaz.
5. Komeni da abokatu partikular baten edo ofizioko baten lanbidez-zerbitzuak eskatzea akusazio partikularra gauzatzeko (biktimaren interesen arabera). Garrantzitsua da legezko aholkularitza lehenbailehen hastea gertaeren ikerketa eta delituen erantzuleen identifikazioa legezko berme guztiekin egingo direla ziurtatzeko.
6. Akusazio partikularra Ministerio Fiskalak beteko du beti, bai eta biktima akusazio partikular gisa agertzen ez denean ere.
7. Komeni da bortxaketa edo bestelako sexu-eraso baten biktimak laguntza psikologikoa eskatzea. Bizkaian Aldundiak zerbitzu bat du sexu-erasoen biktimei arreta psikologikoa eskaintzeko. Zerbitzu horretan profesional espezializatuak dihardute.
8. Berariazko hainbat zerbitzu daude biktimen esku (Biktimaren Arretarako Zerbitzua lurralde bakoitzeko hiriburu-Justizia

Jauregietan, Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktimetzako Aldundiko Zerbitzuak, Udal Zerbitzuak eta abar).

9. Indarkeriazko Delituen Biktimei buruzko Legeak kalte-ordainak aurreikusten ditu sexu-erasoen biktimetzako laguntza psikologikoaren ondoriozko gastuei aurre egiteko.

10. Biktimak, delituaren ondoriozko kalte-galera material eta moralengatik, zigortuarengandik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea du. Horren eraginkortasuna zigortuaren kaudimenaren araberakoa izango da.





justizia-administrazioiko liburuxken fitxategi-zerrenda

1. Justizia-administrazioa. Administrazio publikoa eta herritarrak.
2. Gatazkak ebazteko era alternatiboak.
3. Oinarrizko lan-gida.
4. Atzerritarren eskubideen gisa.
5. Erregistro zibilaren gida. Adin-nagusitasuna eta emantzipazioa. Bizilekua eta auzotasun zibila. Heriotza. Pertsonen desagertzea.
6. Ondorengotzak eta jaraunspenak.
7. Jabetza-erregistroa eta merkataritza-erregistroa.
8. Hiri-errentamenduak.
9. Prozedura zibileko lege berriaren prozedurak.
10. Salaketak eta lekukoak jurisdikzio penalean.
11. Defentsa eta ordezkartza epaitegien aurrean.
12. Doako laguntza juridikoa.
13. Guraso eta seme-alaben arteko harremanen gida. Guraso-agintea. Filiazioa. Tutoretza eta tutorearen irudia. Ezgaitzea. Defendatzaile judiziala. Adopzioa. Harrera.
14. Adingabekoen erantzukizun penala.
15. **Tratu txarrak eta etxeko indarkeria. Sexu-askatasunaren aurkako delituak .**
16. Bikote-harremanen gida. Ezkontza eta bikote-bizikidetzak. Guraso bakarreko familiak. Banantzea, dibortzioa eta baliogabetasuna. Banandu eta dibortziatzeko prozeduraren aldiak.
17. Familia-harremanetik eratorritako pentsioak. Seme-alaben aldeko elikagai-pentsioak. Konpentsazio-pentsioak banantze edo dibortzio kasuetan. Senideen artean elikatzeko obligazioa.
18. Laguntza bidezko ugalketa.